

Curriculum txikia

1961ean, Bilbon jaio nintzen familia euskaldun batean. Mutrikutik etorritako gurasoengandik ikasi nuen euskara maitatzen; eta horri esker, urte askoan dihardut euskara irakasle.

Txikitatik irakurtzeko afizioa eduki dudan arren, oso berandu hasi naiz idazten eta are beranduago ipuin lehiaketetan parte hartzen. 2009ko Santurtziko ipuin lehiaketa honetan, irabazi nuen bigarren saria eta horrek eman zidan aurrera egiteko adorea.

Ordutik, aurtengoa da Santurtzin irabazten dudan laugarrena.

Beste lehiaketa batzuetan ere (Urnieta eta Bizkaidatz) irabazi ditut sariak, baina ez dut sekula ahaztuko Santurtziko izan zela lehena.